



KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA

URTARRILA
ABENDUA
2025



2025EKO JARDUEREN LABURPENA

AURRERA

DIFUSIOA

Jardunbide egokiak
trukatzeko eta zabaltzeko

111 ekitaldi

6.205

parte-hartzaile birtual
eta presentzial



32 ekitaldi
Europako Astea

1.785
bertaratze



EKINTZA

1.742

erakunde lehiakortasuna
hobetzeko jardueretan

KnowInn,
kudeaketa-
metodologiak
ezartzea

1.043
asistentzia



Jardunbide egokiak
truckerako talde
aurreratuak

103

erakunde hezkuntza,
industria, zerbitzuak eta
osasun sektorekoak

5S kluba
82
erakunde



EBALUAZIOA

664

erakunderi egin zaie
diagnostikoa

+1.500

pertsona baino gehiago
Ebaluazio Klubean

*Kanpo
ebaluazioak*

18



*Kanpo
kontrasteak*

181



**ODS
kontrastea**
25

QIA
25



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



846



12 HILABETE HAUETAKO ALBISTE NABARMENAK

URTARRILA-UZTAILA

EUSKALITen ESTRATEGIA 2025

Aurten, alderdi eta jarduera hauetan jarri dugu arreta:

- Kudeaketa Aurreratuaren potentziala **berrikuntza bultzatzeko programak** erabiliz bideratzea (Innobideak Kudeabide...), Eusko Jaurlaritzarekin, foru-aldundiekin eta SPRIrekin lankidetzan, bai enpresa berriak sartuz, bai gaur egun parte hartzen duten enpresei lagunduz eta aurrera eginez.
- Balio-ekarpena egiten jarraitzea, **Kontraste eta Kanpo ebaluazioko zerbitzuak** erabiliz (Kudeaketa Aurreratuko Eredua, GJH Markoa eta EUSKALITek garatutako beste erreferentzia batzuk erabiliz) eta enpresa berritzaileenei ikusgaitasun handiagoa ematea.
- **Lehiakortasun iraunkorra bultzatzea**, hainbat arlori lotutako jardueren bidez: GJH, berdintasuna eta bateragarritasuna, belaunaldi-aldaketa eta

talentuaren kudeaketa... Horretarako, dauden aliantzak sendotu edo beharrezkoenak garatu behar dira, bai sektore publikoan, bai pribatuan.



EUSKADI AGENDA 2030 SARIA

Tamaina eta jarduera sektore guztietako **60 erakundek** jaso zuten Euskadi **Agenda 2030 Saria**, **Imanol Pradales Lehendakaria** buru izan zuen ekitaldian. **10** erakundek jaso zuten **Aurreratua**, bereizgarri altuena, **16 Bidean** aintzatespena, eta **34k**, berriz, **Konpromisoa** aintzatespena.

Lehendakariitzako Komunikazio eta Gizarte Berrikuntzako Idazkaritza Nagusiko **Gizarte Berrikuntzako eta Agenda 2030eko Zuzendaritzak** bultzatzen du sari hori, **GJHak kudeaketan lehiakortasun iraunkorreko elementu gisa sartzea** eta erakundearen **konpromiso eraginkorra** lortzea garrantzitsua dela sustatzeko eta zabaltzeko.

Aintzatespen horiek lortzeko esan nahi du erakundeak alde aurretik frogatu behar duela aurrerapen-maila eta emaitza jakin batzuk lortu dituela. Horretarako, EUSKALITek **ebaluaziorako on line plataforma** bat

garatu du, eta erakundeei eta enpresei **kanpo kontraste** zerbitzua eman die, **GJHak kudeaketan txertatzeko markoa** erreferente hartuta.

Informazio gehiago eta erakunde aintzatetsiak.



EROSKI ETA BELLOTA SARITUAK MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO ESTRATEGIEN INGURUKO JARDUNBIDE EGOKIENGATIK

Bi erakunde horiek irabazi zuten **Bezeroak marketinaren eta komunikazioaren bidez lotzeko estrategiak** gaiari buruzko EUSKALITen Jardunbide Egokien Saria. Bi erakundeak, gainera, CEX 2025 sarirako euskal hautagaiak izan ziren. Sari hori EUSKALIT kide den Bikaintasun Zentroek antolatzen dute urtero.

EROSKI-k "Elikatu pentsatzen duzuna" ekimena aurkeztu zuen. Eduki-plataforma bat da, eta kontsumitzaileek elikadura ulertzeko duten modua eraldatzea du helburu, ikuspegi hurbila, irisgarria eta hezitzailea erabiliz. Plataformak hainbat formatu eskaintzen du informazioa (artikuluak, errezeptak, ekitaldiak, elkarrizketak...), eta euskarri digitalak eta tradizionalak, sare sozialak (Meta, TikTok, Twitter, YouTube), Eroski Club aldizkarian presentzia nabarmena eta saltokietako aktibazioak konbinatzen dituen komunikazio plan integrala garatu da.

Bellota-k azaldu zuen nola sendotu den motordun erreminten familien kokapena eta lehen sarbiderik ez zuten nekazari profesionalakiko lotura. Erabiltzaileek ez zuten marka motordun produktuekin lotzen, **Bepower** marka berria sortu zuten, ikusgaitasunean eta engagementean emaitza bikainak lortu dituen influencer-en marketin kanpaina batean oinarrituta.

Bellotak ere **Publikoaren Sari Berezia** jaso zuen, eta gainerako **finalistak** hauek izan ziren: **Euskadiko Parke Teknologikoa, Osakidetzako Barakaldo eta Sestao ESia eta Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESia, San Prudentzio Ikastetxea eta Bizitegi.**


EUSKALITen Patronatuko (SPRI eta Mutualia, besteak beste) eta marketinaren eta bezeroekiko harremanen arloko kideek osatutako **epaimahai batek** erabaki zuen praktika irabazle horiek hautatzea, eta **berritasuna, estrategiarekiko koherentzia, emaitzak eta beste sektore batzuetara transferitzea** balioetsi zituzten.



INDUSTRIARI LAGUNTZEA

Seihileko honetan, industria-enpresei laguntzeko jarduerak sendotuz joan ziren, eta, urtearen amaieran, emaitza hauek lortu ziren:

- **Eraldatze-jardueretan** (ekintza eta ebaluazioa) parte hartu duten **572 enpresa**.
- **Innobideak-Kudeabide**, erakunde arteko programa, honako hauek sustatua **Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiak, SPRI eta EUSKALIT: 223 kontraste** (48 kontraste berri, 70 berritze eta 105 eguneratze). 2014tik, hobetzeko **2.000 proiektu** baino gehiago egin dira.
- **Innobideak-Prestakuntza: 47** saio **560** bertaratzerekin, bertan, kudeaketaren oinarriko kontzeptuak azaldu dira.
- **23** enpresak hartu dute parte jardunbide egokiak eta kudeaketa esperientziak **trukatzeko taldeetan**.



IRAILA-ABENDUA

2025EKO EUROPAKO ASTEAREN INAUGURAZIO-EKITALDIA: "MUNDU AL-DAKOR HONETAN ERAKUNDEEK AURRERA EGITEKO GAKOA EZ DA GEHIA-GO JAKITEA, HOBETO IKASTEA BAIZIK"

2025eko **Kudeaketa Aurreratuaren Europako Astea** 200 profesional inguru bildu zituen topaketa batekin hasi zen, ideia baten inguruan: **erakunde-kultura aldaketaren ardatz gisa** gero eta ingurune desberdinago, teknologikoago eta zorrotzagoetan.

Jardunaldia **Javier Martínez Aldanondok** ireki zuen, nazioarteko erreferentia dena inteligentzian eta erakunde-ikaskuntzan. **'Adimen Artifizialaren aroan etorkizuna aurreikusteko ikaskuntza kultura'** izenburuko hitzaldian honakoa defendatu zuen: *"Mundu aldakor batean aurrera egiteko gakoa ez da gehiago jakitea, hobeto ikastea baizik".* "IA irakaspen garbia uzten ari zaigu: poliki ikasten badugu, gure erakundeak atzean geratzen dira", azpimarratu zuen.

Kultura erdigunean jartzen duten adibideak

Hiru praktika inspiratzaile on ezagutzeko ere balio izan zuen ekitaldiak. **ORBIK Cybersecurity**-k erabateko aldaketa bizi izan du, kooperatiba bihurtu den oinarri teknologikoko lehen startup-a izatera pasatu baita, eta bere barne-prozesuak definitzen dituen bitartean bere identitate kolektiboa eraikitzeke erronkari aurre egiten dio. Maitane Barberok azpimarratu zuenez, *"ORBIK en prozesuak ezartzen ari gara; horregatik, pertsona proaktiboak bultzatuko dituzten eta gure taldeak pentsatzen duena aktiboki entzuteko espazioak sustatuko dituzten konfiantzazko inguruneak sortzea da gure helburu nagusia".*

Ildo beretik, **GUREA**ko **Jon Ander Arzallusek** azpimarratu zuenez, *"ez da aldaketa mehatxu gisa ikusi behar, aliatu gisa baizik. Gaian murgiltzen bazara, berehala agertzen dira aukerak".* Aukera horietan lanean ari dira dagoeneko, Arzallusek zehaztu zuenez: *"Ikusten ari gara nola sortu lanpostu berriak IAI esker. Identifikatzen dugu, adibidez, euskarazko IAI-ren corpus bat sortzeko beharra, eta hori dagoeneko 30 lanpostu sortzen ari da GUREA".*

Jorge Serrano PREOCA erakundeko kidea, berriz, bat etorri zen kudeaketa ereduak iraunkortasuna

eta talentu konprometitua uztartzea duela helburu, ekintza bakoitzari zentzu estrategikoa emateko. Serranok azpimarratu zuenez, *"benetako eraldaketa atez ate dago. Profesional gisa, eskuzabalak izan behar dugu, eta prest egon behar dugu pertsonen eta talentu berriari gure denbora eskaintzeko, modu jasangarrian gara daitezen"*, esan zuen amaitzeko.

Konfiantza, ikaskuntza eta lidergoa: kultura sendo baten zutabeak

Ondoren, **Susana Hormilla** (Biolan), **Idoia Gil** (Mondragon Unibertsitatea Enpresagintza - MIK), **Juan Ignacio Burgaleta** (Satlantis) eta **Martínez Aldanondo** bera elkartu ziren, erakunde baten kultura nola piztu eta mugitu aztertzeke elkarriketan. Besteak beste, gai hauek landu ziren: ikaskuntzaren kudeaketa, balioen eta praktiken arteko koherentzia, lidergoaren inplikazioa, komunikazioa, aintzatespena eta konfiantza, bai eta estrategia kulturarekin lerrotatzaren garrantzia eta gazteen talentuaren itxaropenak ulertzea ere, kultura korporatiboa jada finkatuta dagoenean..



KUDEAKETA LABURREAN SARIA

Bihotz Gaztea ikastola izan zen **Kudeaketa laburrean lehiaketaren 9. Edizioko irabazlea**, eta bere ikastetxearen **lidergo partekatua** izan zuen hizpide, bere protagonisten bidez, ikasle eta irakasleak. Gainera, **Bideo Amateur Onenaren Saria** (profesionalak ez diren pertsonen egindako bideoak saritzen dituena) eman zen, **We are clickers**-entzat, IAI bidez egindako **Taldearen berria** lanarekin, eta **Publikoaren Saria**, **Tximist Fundazioa** eta **Berdintasuna** jokoan lanarentzat izan zen.

Gainerako finalistak **Mutualia**, **Ejie-KZ Gunea** eta **Ave María Ikastetxea** izan ziren.

Ikusleek nahiz epaimahai espezializatu batek baloratu zituzten lan horiek. Epaimahai hori **Mondragon Unibertsitatea** (Komunikazio Gradua) eta **Media Attack**-eko pertsonen osatzen dute, eta EUSKALITEK balioetsitako kudeaketa eremuaren osagarri den ikus-entzunezko munduan duten aditu ezagutza

ematen dute. Publikoaren bozketan **1.800 pertsona** baino gehiagok hartu zuten parte, aurreko edizioetako zifrak beste urte batez gaindituz.

Finalistak eta irabazleak gure **Youtubeko kanalean**.



HAMABI ENPRESAK KONTZILIAZIOAREN KUDEAKETAREN AINTZATESPENA JASO ZUTEN

CDE, Careers&Jobs, Kolore Guztiak, Sedical, Hutchinson-Industrias Técnicas de la Espuma, CPES Fernando, Zikotz SAU, Murgibe, Centro San Luis, Fundación Alday, Bizitegi eta Urkide Ikastetxea erakundeek jaso zuten aitortzen aitzindari hori, Eusko Jaurlaritzako **Haurren, Nerabeen eta Familien Zuzendaritzak** bultzatua, EUSKALITen laguntzarekin.

Sari-banaketan, urriaren 28an, aintzatespen sistema bat aurkeztu zen, EUSKALITEK 2023tik koordinatzen duena. Sistema horren bidez, lehen aldiz aitortu zen hamabi euskal enpresa eta kooperatibek konpromisoa hartu dutela **bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuko duten praktikak eta neurriak hartzen aurrera egiteko**.

Aintzatespen horiek 2025ean egindako esperientzia pilotu baten emaitza izan ziren, eta haien helburua da denboraren kudeaketa, malgutasunean eta lan, familia eta pertsonala den bizitzaren orekan neurri berritzaileak garatzen dituzten erakundeek lana ikusaraztea eta publikoki aitortzea, eta enpresa-sare osoa **sentsibilizatzea eta mobilizatzea**, bateragarritasuna modu egituratuan integra dadin kultura korporatiboan.

Ekitaldiaren amaieran, **Xabier Legarreta** Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburuordeak hau esan zuen: *"Aintzatespen horiek askotariko enpresa-sare islatzen dute, heldutasun-maila desberdinekoak, baina guztiek helburu bera dute: bateragarritasunean aurrera egitea, strategiaren eta kudeaketa ulertzeko moduaren zati gisa. Gaur egun, enpresa lehiakorra ez da soilik teknologian edo zientzian berrikuntzak sartzen dituena, baita ongizatean, malgutasunean eta erantzukidetasunean berrikuntzak egiten dituena ere".*



7 EUSKAL ERAKUNDE, 2025EKO QUALITY INNOVATION AWARD-QIAN AINTZATETSIK

InguruMena Advanced TEchnologies = imatek, berrikuntza potentziala kategorian, **CFAA Fabrikazio Aurreratuko Aeronautika Zentroa-EHU** ekonomia zirkularraren kategorian, **Donostialdea ESI-Osakidetza** osasun-kategorian, **Politeknika Ikastegia Txorierri** Hezkuntza sektorean eta **Ikerkude (Auziker)** sektore publikoan, nazioarteko fase-ra igaro ziren 5 euskal erakundeak izan ziren, gai-nontzeko herrialdeetako 500 erakunderekin batera lehiatzeko. Horiez gain, beste bi erakunde **Smiley Owl Tech, S.L. eta Centro San Luis**-ek **akzesita** lortu zuten sari horietan.

Azkenean, nazioarteko fasean, **Imatek eta Ikerkude Auziker** zentroek **Prize** saria jaso zuten, eta **Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa-EHU, Osakidetza Donostialdeko ESI eta Politeknika Txorierri** zentroek, berriz, **Award** saria. Hori dela eta, aintzatespen bat jaso zuten Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Sarian.



EUSKALITEK EUSKAL ETE-EN LEHIAKORTASUNA ETA JASANGARRITASUNA BULTZATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN BASQUESG EKIMENEAN PARTE HARTUKO DU

EUSKALITEk, lhoberekin batera, **Euskadiko Industria 2030 Planaren** barruko **BasquESG** proiektuan parte hartzen ari gara. Proiektu horren helburua da euskal ETE-ei egokitutako ebaluazio eta berriemaile sistema bat sortzea. **Eusko Jaurlaritzako Industria Saila** buru duela, **Lehendakariaren eta Ogasun eta Finantza Sailaren** lankidetzarekin, **IHOBE**ren idazkaritza tekniko du, eta enpresa handien (hala nola **Iberdrola, Petronor, ITP Aero, Ingeteam, CAF, Mercedes Benz eta Sidenor**), finantza-erakundeekin (**Kutxabank eta Laboral Kutxa**) eta bitarteko eragileekin laguntza.

BasquESG-en helburua da euskal ETE-en errealitatera egokitutako iraunkortasun txostena eta ebaluazioa egiteko sistema propioa sortzea, enpresa handiek eskatzen dituzten iraunkortasun baldintzak modu erraz, homogeen eta eraginkorrean betetzea ahalbidetuko diena, finantzaketarako eta merkatu berrietarako sarbidea hobetuz. **EUSKALIT** arduratuko da parte hartzen duten ETE industrial guztiei laguntza emateaz eta trebakuntza eskaintzeaz.

Ekimena berehala jarriko da martxan proiektu pilotu baten bidez, zeinaren helburuak baitira euskal enpresetan aplikatu daitezkeen jakitea eta gainerako euskal ETEetan behin-betiko hedapena prestatzea.

Informazio gehiago



KUDEAKETA AURRERATUAREN EUSKAL SARIAREN BANAKETA 2025

Guztira, **18 erakundek Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria** jaso zuten. Sari horren helburua da Euskadiko erakunde aurreratuenak eta kudeaketa praktika onenak dituztenak aintzatestea.

Sari banaketan, **Mikel Jauregi** (Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua), **Begoña Pedrosa** (Hezkuntzako sailburua), **Javier Hurtado** (Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua), **Iván Larraza** (Ongizateko sailburuordea) eta **Lore Bilbao** (Osakidetza zuzendari nagusia) izan ziren, **500** pertsona baino gehiago bildu zituen ekitaldian.

Aurtengo edizioan, **Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria** jaso zuten **7 erakundek: A&B LABORATORIOS DE BIOTECNOLOGÍA y SAN FELIX IKASTOLA**, estrategiako elementuan saria eskuratu duena; **PREOCA SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES y CENTRO FORMACIÓN SOMORROSTRO** PerTsonak elementuan; **MUTUALIA** eta **OSI DONOSTIALDEA OSAKIDETZA** Berrikuntzan eta **EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOA** Gizartean.

Urrezko A, GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA jaso zuen, eta **zilarrezko A, CALASANZ LANBIDE IKASTEGIA** eta **SORTARAZI GIZA GARAPENERAKO ELKARTE KLARE-**

TARRA-rentzat izan zen.

Brontzezko A jaso zuten: **SUTARGI, Beltran ASCENSORES Y MONTACARGAS, S.L COUTH INDUSTRIES, S.L., BATURA MOBILE, NUEVAS TÉCNICAS PROFESIONALES, S.L., ACERMAS-ASOCIACIÓN CENTRO RAFAELA MARÍA DE ACCIÓN SOCIAL, TOKIKOM** eta **BILBOKO MERKATARITZA, INDUSTRIA, ZERBITZU ETA NABIGAZIO GANBERA**.

Halaber, **50 erakundek Kudeaketa Aurreratuaren Diploma** jaso zuten. Diploma hori kanpoko kontrastea jasotzen duten eta Kudeaketa Aurreratu osatzen duten elementuak garatzeko konpromisoa erakusten duten erakundeentzat gordetzen da.

Mikel Jauregi sailburuak hitz batzuekin eman zion amaiera ekitaldiari, eta honako hau adierazi zuen: *“aintzatespen horiek ahalegin handia eskatzen dute, baina, lortutako emaitzak ikusita, asko merezi du. Horrek erakusten du, gainera, Euskadik konpromiso argia duela Bikaintasunarekin eta Kudeaketa Aurreratuarekin, eta euskal erakundek hasitako bide honetan Eusko Jaurlaritza bidelagun izango dutela”*.

► **EKITALDIKO ARGAZKI GUZTIAK**

► **GALAREN LABURPEN-BIDEOA**



2025eko SARITUAK

INDUSTRIA

BRONTZEKO A

- SUTARGI
- BELTRAN ASCENSORES Y MONTACARGAS, S.L.
- COUTH INDUSTRIES, S.L.
- BATURA MÓVIL

ESTRATEGIAN KUDEAKETA AURRERATUAREN EUSKAL SARIA

- A&B LABORATORIOS DE BIOTECNOLOGÍA S.A.

PERTSONETAN KUDEAKETA AURRERATUAREN EUSKAL SARIA

- PREOCA SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U.

GIZARTEAN KUDEAKETA AURRERATUAREN EUSKAL SARIA

- EUSKADIKO PARKE TEKNOLOGIKOA

HEZKUNTZA

ZILARREZKO A

- CALASANZ LANBIDE IKASTEGIA

BRONTZEKO A

- NUEVAS TÉCNICAS PROFESIONALES, S.L. A

ESTRATEGIAN KUDEAKETA AURRERATUAREN EUSKAL SARIA

- SAN FELIX IKASTOLA

PERTSONETAN KUDEAKETA AURRERATUAREN EUSKAL SARIA

- CENTRO FORMACIÓN SOMORROSTRO

OSASUNA

BERRIKUNTZAN KUDEAKETA AURRERATUAREN EUSKAL SARIA

- MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
- DONOSTIALDEA ESI OSAKIDETZA

HIRUGARREN SEKTORE SOZIALA

ZILARREZKO A

- SORTARAZI, GIZA GARAPENERAKO ELKARTE KLARETARRA

BRONTZEKO A

- ACERMAS- GIZARTE EKINTZAKO RAFAELA MARÍA ZENTROAREN ELKARTEA

KULTURA

URREZKO A

- GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA, KOOP. E.

BRONTZEKO A

- TOKIKOM

MERKATARITZA

BRONTZEKO A

- BILBOKO MERKATARITZA, INDUSTRIA, ZERBITZU ETA NABIGAZIO GANBERA



BESTE GERTAERA GARRANTZITSU BATZUK

2025ean, hainbat **programa sektorial** garatzen jarraitu genuen:

MERKATARITZA Saltokitik Enpresara+Agenteen Programa	177 denda
KULTURA BDCC+Hedabideen kudeaketaren hobekuntzarako programa	57 erakunde
SEKTORE PUBLIKOA Justizia eta Q-epea	57 erakunde
HEZKUNTZA Tailerrak eta lankidetzak Hezkuntza Sailarekin	99 ikastetxe
KIROLAK 3K programa	154 kirol-erakunde
GIZARTE ZERBITZUAK Binklusion+Bizikidetzak-unitateen proiektua+Sareen sarea	131 erakunde
OSASUNA	19 zentro
HIZKUNTZA-KUDEAKETA-BIKAIN	sektore guztietako 60 erakunde

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendaritzari laguntzen ari gaitzaizkio XXI. mendean ikastetxe bat kudeatzeko gida bat garatzeko.




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Marko desberdinak zabaltzen jarraitu dugu kudeaketaren alderdi eta elementu zehatzetan arreta jartzeko. 2025ean **Bezeroaren esperientziaren kudeaketa hobetzeko Gida** garatu dugu, gainontzeko 11 markoei gehitu dena. Guztiak **Kudeaketa bilatzailean** eskuragarri daude.

LAN MARKOAK MARCOS DE TRABAJO



3K Programa



bINKLUSIon


Sektore guztietako erakundeekin **30 aliantza** baino gehiago dituen sare bat mantentzen dugu, hazten jarraitzeko eta Euskadiko sare sozioekonomiko osoari balioa emateko, hala nola: **Ihobe, Osakidetza, Orkestra, BAIC, Izaite, Sareen Sarea, Emakunde, Kalitatea Hezkuntzan Sarea...** lankidetzak eta efizientzia helburu komun batekin.



Beste urte batez, **EUSKALITek Euskaraldian parte hartu zuen**. Euskararekin dugun konpromisoa irmoa eta etengabea da, horregatik, maiatzaren 15etik 25era **Euskaraldiarekin** bat egin genuen euskararen erabilera sustatzeko.




Uztailean **webgune berria** atera genuen, EUSKALITekin lankidetzan aritzeko interesa duen erakunde baten kudeaketaren aurrerapena eskaintzen ditugun zerbitzuekin lotzen duen ibilbide bat erakustera bideratuagoa dagoena.



EUSKALITek **Lanbiderekin eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailarekin** lankidetzan jarraitu genuen, adibidez, **Enpleguaren Euskal Estrategia 2030en** printzipioak posible egiten ari diren enpresei jardunbide egokien lehen aintzatespenak emateko ekitaldian. Ekitaldian, **CEGI CONSTRUCCIONES ELÉCTRICAS DE GIPUZKOA, KATIAK, Hirukote eta NABERAN GROUP** enpresei aitortpena egiteaz gain, **Mikel Torres** lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuak, **Alfonso Gurpegui** Enplegu eta Gizarteratze sailburuordeak eta **Francisco Pedraza** Lanbidetako zuzendari nagusiak parte hartu zuten.



KUDEAKETA AURRERATUA EUSKALIT GESTIÓN AVANZADA



Teknologi Parkea, 206 A
48170 ZAMUDIO
T: 94 420 98 55
euskalit@euskalit.net



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA
TRANSICIÓN ENERGÉTICA
Y SOSTENIBILIDAD